ARAUZKO TESTUAK EUSKALKIEN TRADIZIOAN: SAN FRANTZISKOREN HIRUGARREN ORDENA

1. Hasikinak

Maiz ikusten dira gure euskal liburudenda klasikoenetan, euskarazko tituluen ilara luzeak bukatzen diren une berean, halako idaztiño xume eta azal belzdunak, inork inoiz eskuratuko ez dituenak. Distira osoko liburuen hegaletan baino, zokondo-zokondoenean egoten dira horiek, bazter utzita, sekula ere bertaratuko ez den irakurle gosetsu bezain aseezinaren esperoan.

Gehienetan —guztietan ez esatearren— Elizako kontuak dira liburu horien edukiak: garai bateko bederatziurrenak, eliz kantak nahiz otoitzak... Gaur egun, hain zuzen ere, jakin-min handia sortzen ez dutenak.

Euskal literaturaren liburuek aspalditik uxatu zituzten euren orrialdeetatik, eta filologo eta hizkuntzalariek ere ez diete aukera handirik ematen, datu zehatz eta puntu jakin batzuen gaineko xehetasunetan ez bada. Izan ere, badira eguneroko azokan horiek baino arrakastatsuagoak.

Mezua eta edukia zaharkituta, erabat gaindituta dituzte horiek. Joanak dira euren aldiak. Behinolako *best seller* izan

arren, egun indarra eta eragina galdu dute. Orobat zabalkuntza eta edonora iritsi beharra, zeresan pisuzkoaren jabe ez diren neurrian.

Herria zuten helburu horiek. Herriari helarazi behar zizkioten dotrina zehatz baten nondik norakoak eta zantzuak, herriaren kultura eta hizkuntzaren bidez. Hartara, kristau ikasbidearen zerbitzari leialak ziren, irakurle euskaldun alfabetatu zein analfabetoa barruratu nahi zutenak. Horretarako, agerian da, modu erraz eta eskuragarrian eskaini behar zuten irakasbidearen mamia, hartzaileak artez atzeman zezan ikasi beharrekoa.

Gauzak horrela, nork zer ekarri joko horretan, berehalakoa eta eskurakoa zekarten horiek, euskara batu antzekoan, euskalki bakoitzaren tradiziotik abiatuta.

Bada, alabaina, bestelako osagairik euren artean, testu horietako batzuek arauzko izaera nabaria baitute. Irakasbidezkoak, arauzkoak eta, neurri batean ere, herrikoiak izanik testuok, igurikimenak sortzeko modukoak gerta daitezke hizkuntzaren ikuspegitik, egunotan euskarak behar dituen formulen iragarle.

Askoren ustez, zeregin lehor eta agorra da hori, hitzaren ederrarekin alderatuz gero. Halaxe izanda ere, egin beharrekoa, noizbaiteko tradizioa berreskuratzeko bidean jar gaitzakeena.

Horrek berez dakar hurrengo pausoa, hots, testuen aukera egitea. Hautuak hautu, zalantza txikiak horretarako, paradigma esku-eskura datorrelako. Izatez, San Frantsizkoren hirugarren ordena edo senidetza zen euren artekorik begi-bistakoenetarikoa, eta zer esanik ez, horren erregela edo araubidea.

Ezin egokiago dator testu hori aurretiaz aipatu asmoetarako. Hasteko, testu horrek egundoko indarra izan du Ipar nahiz Hego Euskal Herrian, senidetza horren kideak ehunka eta milaka zenbatu direla bertan. Hasian hasi, ezaguna da, edu berean, testu horren euskarazko letrak aldameneko erdarak izan

dituela gider eta zuzendari. Ardurakoa, hala ere, ez da nondik hartu eta itzuliaren zuzena, ezpada euskararen estrategia komunikatiboa, alegia, euskalki bakoitzean arauzko testuaren egileak irakurlea bereganatzeko nola jokatu duen aztertzea, nork-nor esanguratsu horretan.

Egin-eginean ere, euskaldunak erruz ibili ziren halako ordena eta kofradietan, komentuko bizitzaren eginbideak eta obligazioak eguneroko zereginetara itxuraldatzen zituztela. XIX eta XX. mende bitarteko horretan, lekuko ugari datoz aurreko hori baieztatzera, besteak beste, frantziskotarren, kaputxinoen edo karmeldarren inguruan sortu ziren hirugarren ordenako aldra eta taldeak. Erromesaldiak, batzarrak, ospakizunak, gurutzearen jarduerak... oro ziren Terzieren ekimenak, mundu honetan eskuratzeko heriotza ondoko salbazioa. Egileen eraspena eta lerrakera, esan beharrik ere ez da, euskaraz ondu eta garatu ziren, ordenaren kide euskaldunen artean[1].

Horientzat eman zen araubide berezia, eta horientzat ere egokitu behar izan zuten ordenako fraide arduradunek araubide horren esanahia. Hala egin zuten, egin ere, bakoitza bere hurbileko errealitatetik abiatuta. Horrela, araubidea batetik eta herritartasuna bestetik, oinarrizko testua ordenaren premietan.

Azterketarako onurak, beraz, honetara: bateko, esan legez, herritartasuna, testua herritarren artean banatzekoa baitzen, erabat zabalduta zegoen senidetzaren kideek ohiko eta egunerokoa izan zezaten berori; besteko, euskalki bakoitzaren baliabideak erabilita, zein modutan eskuratu zuen egile bakoitzak araubidearen aginduak euskara jator eta dotore batez ematea; hirugarrenez ere, eta ez alde batera uztekoa, erabilera horretatik egunotara ekartzekoa, euskarazko araubideak lantzeko tenorean.

Hitz gutxitan azalduta: lehen esan legez, horra hor testu herritarrak, euskararen tradizio idatzia barruan zeramatenak eta irakasbide baliotsuen erakusle izan daitezkeenak.

2. Testu eredugarriak: nork-noiz

San Frantziskoren hirugarren ordenak bertsio eta argitalpen asko izan ditu historian zehar. Esanaren lekukoak hirutara datoz lerrootara. Lehena, kronologiari dagokionez, Iparraldeko euskararen lorratzetik dator, Arbelbide behenafarraren eskutik, hain zuzen. Bigarrena, aldiz, Mendebaldetik hartua izan da, Ruiz de Larrinaga Bizkaiko frantziskotarraren liburu batetik. Hirugarrena eta azkena, kaputxino baten adorez agertzen da, Aita Meltxior Eskoriatzak ondu eta zertua. Betoz ezaugarriak.

Euskal Herriko Iparraldean Arbelbide [2]zenak (1840-1905) *Erlisionea*[3] izeneko liburuan (1890) kokatu zuen San Frantziskoren heren ordenari buruzko testua. Gerora ere, heren ordenaren araubidea artezki azaldu zuen sona handiko idazle hark, urte berean argitara emaniko beste liburu baten bidez. *Erlisionea* horretatik dator hona testua, besteak beste, eite bertsuko testua erabili baitzuen Aita Blas Babaquy-k aipu zabaleko *Heren-ordenako erreglaren chehetasunak*[4] (1914) idatzi zituenean. Horixe da, Lafitteren aburuz, heren ordenaren inguruko libururik ederrena euskararen esparruan. Zernahi gisaz, Lafitte bera da heren ordenaren aitorle Ipar Euskal Herrian, erakunde hori egoki eta luze arakatu baitzuen *Gure Herria* hilerokoan[5]. Bistan da, hortaz, hona alderaturiko testua ezagupide ugarikoa izan zela Ipar Euskal Herrian.

Mendebaldeko euskarak ere hirugarren ordenako testuak ezagutu zituen. Egilea, dena den, ez da Arbelbide bezain ezaguna euskal letren eremuan. Azalkeria hutsa izango litzateke, haatik, Fr. Juan Ruiz de Larrinaga[6] frantziskotarra (1876-1954) ostentzea. Poligrafo asperrezina eta gai askoren arakatzailea, hainbat aldizkaritan barreiatu zuen hark bere jakituria euskal gauzetan. Idazle segurua, inon segururik badago, bizkaieraren eremuan eta hirugarren ordenako euskaratzaile sutsua. Erregela bera gaztelaniaz argitaratu zuen 1906. urtean; harrezkeroko argitalpenetan, aldiz, euskara izan zuen tresna, hain justu ere, 1908, 1910 eta 1911. urteetan. Lehena papereratu da hemen, garai batean

Aita San Frantzisko-ren irugarren ordenako erreglia eta indulgentziak[7] (1908) izenburupean agertu zena.

Ekialderago joan eta erkaketaren hirugarren testua ere begien bistakoa izan dakiguke. San Frantziskoren seme-alaben arteko adarretan puntarengo diren kaputxinoak datoz haren egile. Nabarmen-nabarmena aita Meltxior Eskoriatzak[8] (1870-1950) moldatu zuena eta irakurleak abiaburu moduan orrialdeotan ikus dezakeena. Autorearen izena, erlijio bizitzatik kanpo behinik behin, Meltxor Garai Elexpuru izan zen, eta emaitza Donostian argitaratu zuen, *Irugarren senidetza Eskoriatzar Aita Meltxiorrek kaputxinoak egindako liburua irugarren ordenako senide ta beste kristau guzientzat oso egokia*[9] (1924) titulupean. Bertan dago, liburuaren hasiera-hasieran, beste testu biekin erkatzeko modukoa den arauzko multzoa.

Erreparatu diezaiogun, bukatzeko, aldikotasunaren ezaugarriari. Lehen esan legez, XIX eta XX. mende artean ari gara, Iparraldean euskal letren loraldia ematen ari den aldi berean. Izenak aldera daitezke hona, baina pisuzkoena, edonola ere, ez da hori. Pisuzkoena da hango testua besteekin batera ikertu eta erkatzea. Horretarako neurgailua, bizkaierazko tradizioan sustraituriko testua, aranatar giroaren aurrekoa. Azkenez ere, hiruko izaria osatzeko, testurik garaikoena, osterantzeko aldartea erakusten duena.

Hiru testu, hiru euskalki, hiru aldi desberdin. Idatzizko tradizio finkatuetan errotuak hirurok. Jarraian ikusiko denez, hizperriaren jokoari men egin gabe, Arbelbide eta Ruiz de Larrinagaren kasuetan; berriagoa edo menturaz bolada berrien zaleagoa, Eskoriatzaren baitan; alabaina, abiaburu egokiak hiruren arteko non-zer hori ikertzeko.

3. Erkaketaren emaitzak: xehetasunik ohargarrienak

Aukerako testuak zehaztu ondoren, hari-haritik dator testuotan irizpide batzuk ezartzea, ikerketaren bide-eramaile:

a) Izena bera, haste-hastetik, bitara agertzen da . Horretara, *erregela* (Arb) dena, *erreglia* (Rl) eta *zuzenbidea* (Me) dator gero. Bestera ere, hirurak dira *hirugarren ordena* edo *heren-ordrea/heren-ordena* esamoldearen aldekoak, bakoitza bere tradiziotik hartuta.

b) Grafiari buruz ere, esatekorik bai. XIX. mendeko Iparraldeko grafia klasikoa Arbelbideren kasuan (*ch, th, k*); XX. mende hasierako erreformaren aldartekoa Ruiz de Larrinagaren testuan (*tš, s/z, k*) eta erreformaren ondorengoa , bete-betean, Eskoriatzarenean (*r̄, k, l̄*).

—*Artharekin atchikiko dute elkharren arteko eta guziekilako unionea, karitatea, batasuna. Egin ahalaz baketuko dituzte aharra eta hasarregoa guziak.* (Arb)

—*Illean gitšienez bein ondo konpesau eta komulgau beitez.* (Rl)

—*Begiratzaïeak senideren bati burubide onak, edo ordain osasungaria ematean, onek guzia apalki artu ta bete egin bear du.* (Me)

c) Barne banaketari buruz, *artikuluak* (Arb) dira lehenak, eta horren hurrengo *buruak* (Me); artean ere, halakorik gabekoak nabarmentzen dira Bizkaiko testuan. Azpimarratzekoa, nolanahi ere, artikulu horiek ez direla gaur egungo lege-testuetan agertzen diren horietakoak, baizik eta kapitulu nagusien mugarriak finkatzekoak eta barruan zati laburragoak dituztenak.

d) Santuaren izendazioa tradizio desberdinetatik hartzen da. Hortaz, Iparraldekoak *San Frantses* (Arb) egingo du; Hegoaldekoak, berriz, *Aita San Franzisko* (Rl), edota, hizperriagoa dena, *Aita Prantzisko Donea* (Me), garaian garaikoari makurtuz.

e) Ordenaren kideak nor izan eta horiei testuek ematen dizkieten izenak ere, adierazgarri oso, egile bakoitzak bilatu

nahi duen hur-hurrekotasuna lortzeko. Mailarik objektiboena eta, beharbada, jatorrizko testutik gertuena, Iparraldetik dator. *Terzierak* (Arb) dira, beraz, horko protagonistak; testurik berrienean, ostera, *senideak* (Me) dira izendatuak, euren arteko barnegiroa adierazi nahian. Askoz giro barnerakoagoa, oraindik ere, bizkaitarraren testuan, horrek *neba-arrebak* (Rl) errepikatzen baititu, behin eta berriro, manuzko perpausetan. Testuaren barruan, Iparraldeko Arbelbidek bere ukitua ezartzen du, hirugarren ordenako kideen artean lotura sendoak indartzeko asmoz. Hortik datoz, besteak beste, *haurrideak* eta *haurridegoak* (Arb).

f) Aginduaren eta manuaren ideiak, jakina denez, leku zabala du testu juridikoetan. Horretara, egile bakoitzak bere estrategia dakar, gauza bera molde baiezkoan, aditza bera perpausaren atzenean jarrita,

—*Irugarren Ordenian sartu gura dabenak, 14 urtetik gorakoa izan bear dau...* (Rl)

—*Irugarren Ordenan artzen diranak, hamalau urtetik gorakoak, ...izan bear dute* (Me)

nahiz ezezkoan emateko, debekuaren indarra aditzaren aitzintatasunean datzala,

—*Ez diteke nihor sar Hirurgarren Ordenan hamalau urtheak betheak izan gabe...* (Arb)

g) Egin beharrekoak hiru moldetan plazaratzen dira testuotan, nahiz *aginte-era*, nahiz *geroaldia*, nahiz *aditza + behar* katearen bidez.

• *Aginte-era*ren bidez, bizkaieraren testuan beti-beti, eta maiztasun handiarekin, Eskoriatzaren perpausetan:

—*Legez testamentua egin leikenak, egin beie ori, sasoi onian.* (Rl)

—*Azken-naia egin dezaketenak, garaiz egin bezate, beren ondasunak ondo eratuaz.* (Me)

- *Geroaldia* gailendu, Arbelbideren (aldizkotasun zabalarekin) eta Meltxor Eskoriatzaren (oso bakanetan) testuetan batez ere:

  —*Hilabethe bakotchean luzenaz beren bekhatuak cofesatuko dituzte: hilabethe guziez bederen mahain saindurat hurbilduko dire.* (Arb)

  —*Senidetzako Ardurak ematea, Senideak Batza_ean bilduta, egingo da.* (Me)

- *Aditza + behar* egitura ere, artean-martean, Iparraldekoan batik bat:

  —*Testamenta eta ordeinua egin dezaketen guziek egin behar dute dembora deno, luzatu gabe* (Arb)

h) Subjuntiboak edo *gurarizko erak* berebiziko jokamoldea izaten du manuzko testuetan, aginduak zehazteko garaian. Gure testuotan, berriz, ez da halakorik nabaritzen Hegoaldean, ziur asko, *aginte-eraren* erabileraren ondorioz. Iparraldekoan, oso modu bakanduetan, *–la* osagarria ere tartean dagoela:

—*Zinik ez dezatela sekula egin, beharrez beizik* (Arb)

i) Hiztegi kontuak, ez edonolakoak. Horretan igaroaldiak eta bolada-usainak ugariagoak izaten dira, euskalki bakoitzaren tradizioa moldatua baitator haize berrien aldetik. Iparraldekoan espero zena, alegia, *testamenta* edo *ordeinua* (Arb) sinonimiaren bidez azaltzeak *testamentua* (Rl) dakar bizkaierazkoan eta, lehen gertatu legez, *azken-nahia* (Me) oraintsuagokoan, kronologiaren azken zedarrian.

Orobat, hiztegiaren erabilera perpausaren barruan, lehena *komedia lanjerosetarik*, hurrena *komedi arriskugarrietatik* eta azkena *jostirudi, antzerki ta leku galgarietatik*, edu honetara bilduak:

—*Atzartasun handienarekin urrundu beharko dire bala edo dantzetarik, komedia lanjerosetarik eta bilkura libertinetarik.* (Arb)

—*Konturik andienagaz gorde beitez, dantza, joku eta komedi arriskugarrietatik, eta bardin jan-edan larregietatik.* (Rl)

—*Ardura aundiaz alde egin bezate, dantza, jolas, jostirudi, antzerki ta leku galgarietatik, eta jan-edan geiegietatik.* (Me)

j) Testu berean ere bestelako kontu-arrazoiak emateko aukerak. Adibidez, hiru testuotan ageriko diren hirugarren ordenako kargu, batzar eta agintarien zertzeladetan. Ipiapa guztiak emateko modurik ez badugu ere, bai, ordea, hurbilketa modukoa, testuon artekoa bereizteko:

—*Kargudunak, bilkhura, bisitatzaileak, minichtroak, guardiano, aitzindari ordinarioak* (Arb)

—*Ofizio edo karguak, batzarra, bizitadore edo kontuhartzaileak, ministru, konbentuetako aita nagoziak, aita nagoziak* (Rl)

—*Ardurak, batzarra, begiratzaileak, buruzai, nagusiak* (Me)

i) Joskeraz zer nabarmendu laster antzematen da. Uste izatekoa denez, Iparraldeko testuan ohartuagoak dira anaforikoak, perpausaren bizkarrezurra osatzeko puntuan:

—*Emazte ezkonduak ez ditezke errezebi senarraren ichilik eta harren baimenarekin beizik: non kofesorak ez duen, kasu batzuetan, bertzela jujatzen.* (Arb)

—*Jakin behar da Erregela hunen kontrako hutsak ez direla bekhatu, non ez doazin Jainkoaren edo Elizaren manamenduen kontra.* (Arb)

Izan ere, zenbait kasutan, ortografiaren zeinuak dira esanaren mugarri. Horra, besterik gabe, Ruiz de Larrinagak darabilen koma erreskada:

—*Al-dabeenak, Mesa Santia entzun beie egunian egunian, eta illean illean Naguziak aginduten deutsezen batzar edo juntetara bere, batu beitez gustiak.* (Rl)

4. Laburrean

Aurrekoa ikusita, ondoriorik esanguratsuenak batera zein bestera zerrendara daitezke, hasierako xedea aintzat hartu eta egungo euskararen juridikotasunari euskal tradizioaren aztarnak eskaintzeko gogoz.

Hiztegiaz den bezain batean, azpimarratzekoa da testuek euren tradizioari eusten diotela, Iparraldean herritarra, Hegoaldean hura bezain herritarra bizkaieraren kasuan, hizperriagokoa edo aranatarren kutsuagokoa enparauan. Hala ere, hiru testuotan dago halako oreka, halako egonkortasuna bertako osagaien artean. Badirudi, hortaz, gure *testamentu, erregela* eta antzekoek sustrai sendoak dituztela euskararen jorraketan. Hortxe dago, ausaz, norabidea, mailegu gordinaren eta egoki euskaraturiko hitzen artekoa behar den moduan zertzeko.

Esamoldearen alorretik nabaria da Hegoaldeko testuek zerabilten *aginte-era*ren tonuak hirugarren ordenakoen artean jokatu nahi duela. Egunotan, ordea, *aginte-era*k ez du bide esanguratsurik egin arauzko esamoldeetan, jokaera neutralago baten mesederako. Izatez, *aditza* + *behar* egitura eta *geroaldia* dira gaur egun erabilienak, lege-testuetan halakoak euskaratzeko orduan. Era berean, debekuaren biribila, *ezezkoa* + *aditz jokatua* perpausaren aitzinean kokatuta. Horretan, zalantzarik ez, Iparraldeko testua da *juridikoena,* edo, hala nahi izanez gero, gure egungo parametro eta esapideetara gehien hurreratzen dena. Azpimarratzekoa, edozein modutan ere, *subjuntibo* edo *gurarizko era*ren agerpen murritza, manuzko egituraren bidez.

Joskeraren ikuspegitik, irtenbide klasikoak nagusitzen dira: anaforiko gutxi, perpausaren antolakuntza ohikoa... Erregistro juridiko duina eskuratzea ere, ez aparte, herritartasunari ihesik

egin gabe. Tankera horretakoak dira testuok eskaintzen diguten irakasbidea. Legelari, itzultzaile nahiz jardule juridikoek hortxe dute aurrepausoa, oraingo aldiotan aurrekoen ahaleginak ezagutzeko eta ezagutarazteko ere. Zernahi gisaz, tradiziorik gabeko —omen— euskara juridikoaren barruan, zin-zinezko mugarri esanguratsuak.

Andres Urrutia

5. Testuak banan-banan: aurkezpena

Erlisionea, Eskual-Herriari dohazkon egiarik beharrenak. Heren-Ordreko chehetasunekin eta Meza-Bezperen othoitzekin	**Aita San Franziskoren Irugarren Ordenako Erreglia eta Indulgentziak**	**Aita Prantzisko Donearen Irugaŕen Ordenako Zuzenbidea**
I. ARTIKULUA. HAURRIDE BERRIEN HARTZEAZ ETA MOLDATZEAZ. AITA-SAINDUAREN HITZAK	I. NORTZUK SARTU LEITEKEZEN III ORDENIAN, ETA ZER AGINDU BEAR DABEN	LENENGO BURUA. SAŕERA, IKASTEURTEA, ESKEÑITZA
§1. Ez diteke nihor sar Hirurgarren Ordenan hamalau urtheak betheak izan gabe; ez eta bizitze eta aztura onak ez dituen bat; unionearen adichkide, fede katolikoaren atchikitzaile leyal, Eliza Erromanoari eta Sainduari osoki sumetitua dela ezagutua ez den bat.	1. Irugarren Ordenian sartu gura dabenak, 14 urtetik gorakoa izan bear dau, eta ganera, ekandu oneko kristiñaua, baketzua, fede-garbidu-na eta batez bere, Eleizama Santiari, zor jakon maitetasun eta begiramentua, zintzo gordeten izan deutzona.	I. Irugaŕen Ordenan artzen diranak, hamalau urtetik gorakoak, oitura onekoak, pakezaleak, eta batez ere Jaungoikoaren, Elizaren eta Aita Santuaren aginduak betetzen ondo oituak eta zintzoak izan bear dute.

§2. Emazte ezkonduak ez ditezke errezebi senarraren ichilik eta harren baimenarekin beizik: non kofesorak ez duen, kasu batzuetan, bertzela jujatzen.	2. Ezpeitez artu Ordenian, euren senarren baimenik eztaukeen andra eskonduak, aita konpesoriari bestelan ezpaderitsako beñipein.	II. Andre ezkonduak ez bitez artu beren senaŕen ezaguera ta baimen gabe, beren Aitorlearen iritzia bestelakoa ezpada.
§3. Hirurgarren Ordenako membroek, garrayatuko dute usayako eskapulario edo abitu ttikia eta korda; ez lukete bertzela zuzenik Ordena hortako ontasunetan.	3. Ordenian sartunikoak, eroan beiez soñian, oituria dan legez, eskapulario eta kordoia; bestelan eztira irabasten Ordenako mesede eta indulgentziak.	III. Irugaŕen Senidetzan artuak, oitura danez, eskapulario txikia ta lokaŕia erabili bitzate; bestela, ez diraizango Senidetzako eskubide ta eskeŕen jabe.
§4. Hirurgarren edo Terzieren Ordenan sarthuko direnek eginen dute urthe baten nobiziata, hori da frogantza; gero deitzen dituztenean, ohi den bezala, profesionerat, hitz emanen dute Jainkoaren manamenduak begiratuko dituztela, Elizari obedituko diotela, eta beren profesionearen, erran nahi Erregelaren kontra zerbeit hutsetan erortzen badire, errana izanen zayoten satisfazionea eginen dutela.	4. Irugarren Ordenian sartunikoak, urte oso bete arte, nobiziadu edo proban iraun bear dabe; eta alan urte oso ori bete ezkero, profesau beitez, eragozpenik ezpadago, aurretik berba emon edo aginduaz, Jaungoikoaren legeko mandamentuak gordeko dituezela, eta bardin Eleizama Santiaren esanak bere; eta ganera, aginduriko gauzan onen baten utz egiten badabe, gertu edo prest dagozala utz-egite edo faltia penitentziaz kituteko.	IV. Irugaŕen Senidetzan artuak, Ikasteurtua oso bete ondoan, bear bezela Eskeñitza (Profesioa) egin bezate, Jaungoikoaren eta Elizaren aginduak gorde, ta Zuzenbide onetan egindako utsak betetzea aginduaz.

II. ARTIKULUA. BIZITZECO MANERAZ	II. IRUGARREN ORDENAKOEN BIZIMODUAN	BIGAŔEN BURUA. BIZIERA
§1. Terzierek beren beztitzeko maneran bazterrerat utziko dituzte urguluzko chedez mundutarrek egiten dituztenak, eta begiratuko bakotchak bere kondizionean, modestia sainduaren erregelak.	1. Irugarren Ordenako neba-arrebak, jantzian zein beste edozein gauzetan, itsirik alde batera luju larregi eta moda bide-bagiak, bizi beitez noberen malliari jagokon bidezko neurrian.	I. Irugaŕendar Senideak, apainkeri ta jantzi eragabeak utzita, egoki jantzi bitez, bakoitza bere maïakoari dagokion eran.
§2. Atzartasun handienarekin urrundu beharko dire bala edo dantzetarik, komedia lanjerosetarik eta bilkura libertinetarik.	2. Konturik andienagaz gorde beitez, dantza, joku eta komedi arriskugarrietatik, eta bardin janedan larregietatik.	II. Ardura aundiaz alde egin bezate, dantza, jolas, jostirudi, antzerki ta leku galgaŕietatik, eta janedan geiegietatik.
§3. Jan-edanetan maithatuko dute arruntasuna eta gelditukо dire izarian: debotki eta esker onezko sentimenduekin Jainkoa othoiztuko dute apairuen aitzinean eta ondoan.	3. Neurri onian janedan beie, bedeinkatuaz aurretik maia edo janariak; eta jan ostean, ezpeitez maietik jagi, Jangoikoari ezker-onak emon barik.	III. Jan-edanak neuŕiz egin bitzate, asieran maia onetsi ta azkenean Jaunari eskeŕak emanaz.
§4. Barur eginen dute Mariaren bekhaturik gabe Konzebizioneko besta bezperan, eta San Frantses Patriarkaren besta bezperan. Terzieren leheneko Erregela zaharrak ematen duena	4. Andra Mariaren Kontzenziño, eta Aita S. Franziskoren bespera-egunetan, barau egin beie; eta antsiñeko neba-arrebien modura, barikuetan baraua eta eguastenetan bijilia egin	IV. Andre Mariaren Sortze Garbi ta Done Prantzisko auŕeko egunean, barau egin bezate. Gañera, aintziñako Irugaŕendaŕen gisara, ostiraletan barau, edo asteazkenetan aragi-uztea

segituz, nahi badute, ortziralez barur eta asteazkenez mehe egin, bainintz ditezte laudagarri.	gura dabeenak, guztiz ondo egingo dabe.	egiten dutenak, goragarîak izango dira.
§5. Hilabethe bakotchean luzenaz beren bekhatuak cofesatuko dituzte: hilabethe guziez bederen mahain saindurat hurbilduko dire.	5. Illean gits_ienez bein ondo konpesau eta komulgau beitez.	V. Aitortzea ta Jaunartzea ilero egin bezate.
§6. Terzier, Ordena sakratuetako ofizioa egun guziez erraten dutenek, ez dute pondu hunen gainean bertze egitekorik: bainan edo Elisako ofizioa edo Ama Birjinaren ofizio ttikia erraten ez duten guziek erran beharko dituzte egun guziez hamabi *Pater, Ave, Gloria,* ez badire ezin erranezko gisan eri.	6. Irugarren Ordenako neba-arrebak, makal edo geisorik egon ezik, errezau beiez egunian 12 *Aita gure, Ave Mari* eta *Gloria*: baiña Abadiak, edo Eleizama Santiaren eguneroko errezuak egiten dabezen Eleizgizonak, eta Birjiña Mariaren *Oficio Parvo* deritson errezua egin daroienak, eztaukie 12 *Aita gure* orrek esan bearrik.	VI.Irugarendar Elizgizonak, egunero Jainkozko Otoitz egiten duten ezkero, ez dute beste otoitzik egin bearik. Baña besteak, Jainkozko Otoitza, edo Andre Mariaren Otoitz Txikia egiten ezpadute, egunero 12 *Aitagure, Agurmari* ta *Gloria* esan bitzate, gaixorik ezpadaude.
§7. Testamenta eta ordeinua egin dezaketen guziek egin behar dute dembora deno, luzatu gabe.	7. Legez testamentua egin leikenak, egin beie ori, sasoi onian.	VII. *Azken-naia* egin dezaketenak, garaiz egin bezate, beren ondasunak ondo eratuaz.

§8. Etsemplu ona eman dezotela Terzierek beren familian, debozionesko pratikak eta obra onak besarkatuz. Ez dute beren etchetan sartzerat utziko berthutea kolpa dezaken liburu eta gazetarik, eta beren menekoak gibelatuko dituzte horrelako irakurtzetarik.	8. Bizimodu on, garbi eta birtutetzu baten bitartez, izan beitez etseko zein kanpoko gustien ispillu. Eta ganera ez peie itsi sartuten euren etseetan edo euren mendekuenetan, arimian zein gorputzian iñori kalte egin leikion liburu, papel, edo irakurgairik.	VIII. Etxeko bizieran, guzien ispilu izan bitez, egintza on guziai indara emanaz. Liburu ta paper txarik ez bezate etxera eraman. Eta ez bitzate mendekoai utzi olakorik irakurtzen.
§9. Artharekin atchikiko dute elkharren arteko eta guziekilako unionea, karitatea, batasuna. Egin ahalaz baketuko dituzte aharra eta hasarregoa guziak.	9. Bizi beitez alkarren arteko ongura edo maitetasunian, eta gorroto-asarreak, beste lagunen artetik bere kentzeko eta pakeak eragiteko, alegiña egin beie.	IX. Etxekoen eta kanpokoen artean maitasuna ta onginaia izaten saiatu bitez; eta baita ere, al dutenean, asareak paketu ta adiskidetasunak egiten.
§10. Zinik ez dezatela sekula egin, beharrez beizik. Ez dute elhe desonestik erranen, ez eta trufa konbeni ez direnik. Arratsean, contzientzia etsaminatuko dute hea holako hutsetan erori othe diren, eta hobendun kausitzen badire urrikitan sarturik egin dezatela hobeki.	10. Premiña barik ezpeie iñoiz egin juramenturik, ezta esan bere berba loi, lotzatsarreko eta iñori laban-eragitekorik. Eta gaubetan aztertu edo esamiñau beie euren kontzientzia, okerren bat egin ete daben ikusteko; eta baietzian, damutu beitez benetan, eta egin penitentzi zerbait.	X. Ez bezate ziñik egin, bearik gabe. Itz lasai ta txantxa itxurik ez bezate iñoiz ere aipatu. Baru-aztermena egin bezate gabero, utsik egin ote duten ikusteko; ta baldin egin badute, damuz ordaindu bezate.

§11. Errechki ahal badute, entzunen dute egun guziez Meza saindua. Aitzindariak markatu hilabeteko biltzarretan aurkituko dire.	11. Al-dabeenak, Mesa Santia entzun beie egunian egunian, eta illean illean Naguziak aginduten deutsezen batzar edo juntetara bere, batu beitez gustiak.	XI. Era ona dutenak, saiatu bitez egunero Meza entzuten.
§12. Bakotchak bere ahalaren arabera emanez zerbeit diru, eginen da moltsa bat, Haurride errumesenen laguntzeko guziz eritasunetan, edo Elizako ohore eta beharrentzat.	12. Neba-arreba gaisoen osagarrirako, eta Eleiz puntziñoiak alik ondoen egiteko, emon bei bakotsak aldauan besteko limosnatsua.	XII. Beafean, eta batez ere gaixo dauden senideai laguntzeko, ta Elizkizunak alik ondoen egiteko, al duten eran, zerbait eman bezate.
§13. Minichtroak joanen dire Haurride erien bisitatzerat edo norbeit egorriko dute karitatezko obra hori betheko duena. Eria lanjerian denean emanen diozkate behar diren abertimendu eta kontseilluak, dembora deno har detzan azken sakramenduak.	13. Ordenako Nagoziak, eurez edo euren izenian beste baten bitartez, bisitau beiez gaisorik dagozan neba-arrebak, onekaz bear dan legez, maitetasun edo karidadeko zeregiñak beteteko. Eta gaiso orren gatsak azkenekoa badirudi, Eleizakoak denporaz erakarri eta artu eragin beieez gaisoai.	XIII. Zuzendariak berez, edo beste baten bitartez, senide gaixoak ikusi ta auekin maitasunezko egintzak egin bitza. Ta gaitza txafa danean, Elizakoak garaiz artzeko gaixoari adieraziko dio.

§14. Herriko eta han gertatuko diren Terzier guziak causituko dire Haurride hilaren ehorzteko ofizioan; hilaren arimaren sokorritzeko erranen dute Patriarka San Domingok irakatsi Arrosarioaren herena, bortz hamarreko. Apezek Mezan, eta bertze Terzierek ahalaz Komunione sainduan, othoitz eginen dute joan Haurridea sar dadin bake Eternalean.	14. Neba-arreba illeen entierrura edo ondretara batu beitez erriko neba-arrebak, bertan arkituten dirian beste erbestekoakaz, eta guztien artean errezau beie arima aren alde Errosario santua. Abadiak ganera Mesa Santian, eta bestiak alizan ezkero Komuniño Santua artunaz, erregutu beie Jaungoikoari arima aren betiko atzeden edo deskantzurako.	XIV. Senideren bat iltzean, eſiko ta eſian dauden beste Senideak ere, bere *iletara* joanda, bere animarentzat Eſosario zati bat esan bezate. Gañera, Apaizak Mezan, eta besteak, al badute, Jauna artuaz, ildako senidearen betiko zorionerako otoitz egin bezate.
III. ARTIKULUA. KARGUEZ, BISITAZ ETA ERREGELAZ	III. OFIZIO EDO KARGUAK, BIZITIA ETA ERREGLA ONEN INDARRA	IRUGAŔEN BURUA. SENIDETZAKO ARDURAK (KARGOAK), IKUSTALDIA, TA ZUZENBIDE BERBERA
§1. Kargudunak hautatuko dire Terzieren bilkhuran; kargua atchikiko dute hirur urthez. Nihork ez du arrazoin funtsezkorik gabe errefusatu behar, ez eta bethe bere kargua nagiki.	1. Ordenako ofizio edo karguak neba-arrebien artian emoteko, batu beitez batzarrian, eta an emon beiez kargu orrek 3 urterako. Bidezko arrazoi barik ezpei iñok its_i artun barik emoten jakon ofizioa, eta bein artun ezkero, bete edo kunplidu bei bera arduraz edo kontuz.	I. Senidetzako Ardurak ematea, Senideak Batzaŕean bilduta, egingo da. Senide guziak daude beartuak, bidezko eziñik ezpadute, emandako Ardurak artu ta zintzo betetzea.

§2. Erregela ongi begiratua othe den, errenkurarekin jakin behar du *Bisitatzaileak;* hortakotz Haurridegoak bisita detzala urthean behin ahalaz, eta behar bada maizago; bilkhura jeneral baterat deituko ditu Minichtroak eta Haurrideak, eta hauk aurkitu beharko dire bilkhura hartan. Bisitatzaileak ematen badio Terzier bati abertimendu edo manu edo punimendu salbagarri bat, hobenduna humilki sumetituko da, eta onhartuko du penitentzia.	2. Bizitadore edo kontu-artzailleak begiratu eta ikusi bei ia ondo gordeten dan edo ez Erregla Santia neba-arrebien artean. Onetarako urtian bein edo sarriago, alan bear bada, ikusi eta bizitau bei bere mendeko III Ordenia, deiturik batzarrera Ministru eta beste neba-arreba guztiak. Eta alan baturik dagozala, Bizitadoriak iñori, bide zuzenetik alderatu dalako edo alan, konturik artun edo, bear bada, penitentziren bat emoten badeutzo, asarretu edo mukertu barik orregaitik, entzun eta artun beiz arek pazientzian, Bizitadoriak berari esan edo aginduriko gauza orrek.	II. Begiratzaïeak saiatuko dira Zuzenbide au betetzen ote dan ikusten, onetarako urtean bein, edo, ala bear bada, geiagotan, Senidetzak ikusi ta Batzarak egiñaz, Buruzai ta senide guziai biltzeko aginduta. *Begiratzaleak* senideren bati burubide onak, edo ordain osasungaria ematean, onek guzia apalki artu ta bete egin bear du.
§3. Bisitatzaileak hautatuko dire Frantsiskanoen Lehen-Ordenan edo Fraiden Hirurgarren Ordenan, Guardianoeri galdeginez nor izendatu behar den. Fraide ez denik ez diteke izan Bisitatzaile.	3. Bizitadore edo kontuartzaillea, Aita S. Franzisko-ren I eta III Ordenako Aitafraillenetarikoa izan bear dau, konbentuetako Aita Nagoziak orretarako auturikoa. Eta ezin autu leitekez, Aita, Abade, edo mezakoak izan ezik.	III. Begiratzaleak Prantzisko Donearen Lenengo ta Irugaren Ordenako Nagusiak, edo auek jaritako Erlijiosoak izango dira. Ta auek Ikustaldiak egin bitzate, ala bear danean.

§4. Obeditu nahi ez duen eta etsemplu gachtoa ematen duen Terziera abertitua izanen da hirur aldiz; ez bada sumetitzen, Ordenatik ezarriko dute kampo.	4. Naguzien agindu edo esanak egin gura eztabeezen nebaarrebak, edo bestien kalterako baiño eztirianak, 3 bider deituta bere, zuzenduten ezpadira, bota beitez Ordenatik kampora.	IV. Gaizki dabiltzan senideai bigaŕen eta irugaŕen aldiraño burubide onak emango zaizkie. Baña, ala ere ontzen ez diran senideak, eta kaltegaŕiak diranak, Senidetzatik bota bitez.
§5. Jakin behar da Erregela hunen kontrako hutsak ez direla bekhatu, non ez doazin Jainkoaren edo Elizaren manamenduen kontra.	5. Jakin beie nebaarreba guztiak Erreglako agindu onetan utz edo falta egitea, eztala pekatu, baldin agindu orrek, era berian bardin sartuta ezpadagoz Jangoikoaren edo Eleizama Santiaren aginduen artean.	V. Guziak jakin bezate, agindu auetan uts egiñaŕen, ez dutela pekaturik egiten; bestela Jaungoikoaren, edo Elizaren aginduetan egiten ezpadute.
§6. Arrazoin handi eta egiazko batez gibelatua balimbada Terzier bat Erregela huntako zerbeit pondutarik, dispentsatua izanen da pondu hetarik, eta, zuhurtziarekin bertze zerbeitetarat gambiatuko diote. Franziskanoen Lehen eta Hirurgarren Ordenako aitzindari ordinarioek, bai eta aiphatu ditugun Bisitatzailek badituzte dispentsa horien emateko behar diren podore guziak.	6. Azkenik, arrazoisko zer edo zegaitik, baten batek ezin badauz gorde Erregla onetako aginduren batzuk, agindu orretatik askatu edo beste gauzeen batzuetara aldatuteko eskubidea, euki daukee S. Franziskoren Ordenetako Aita Naguziak, eta baita onek autu edo izentaten dituezan Bizitadore edo kontu-artzalleak.	VI. Norbait Zuzenbide onetako aginduen batzuk beteeziñean arkitzean, agindu auek askatu ta aldatu litezke. Len aipatutako Prantziskko Donearen Lenengo ta Irugaŕen Ordenako Nagusiak, eta *Begiratzaïeak* izango dute onetarako eskubidea.